

UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2018ko IRAILAREN 21ean IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

- Marisa Aldmizetxebarria andrea (Euskara Zinegotzia)
- Iratxe Garmendia andrea (Gernikako AEK)
- Marian Araukua andrea (Allende Salazar ikastetxea)
- Urko Duarte jauna (San Fidel Ikastola)
- Josu Ojinaga jauna (Seber Altube Ikastola)
- Genma Astigarraga andrea (Barrutia Ikastetxea)
- Goizalde Gezuraga andrea (Barrutialde Institutua)
- Kepa Bilbao jauna eta Luis Ortuzar jauna (Gernika Institutua)
- Ainhoa Artetxe andrea (Mertzede ikastetxea)
- Xabier Bilbao jauna (Berritzegunea)
- Emilio Linaza jauna (HHI-EPA)
- Begoña Bilbao andrea (Inmigrazio teknikaria)

Ezin etorria zuritu du Hezkuntza Arloko zinegotziak (Iñaki Gorroño Etxebarrieta)

Idazkaria: Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (Bittor Zarrabeitia)

Hasiera ordua: 9,30

Amaiera ordua: 11,30.



**1.- 2017-2018 IKASTURTEAN IKASLE ETORKINEI
ESKAINITAKO EUSKARAZKO ERREFORTZUAREN
EMAITZAK AZTERTU ETA 2018-2019 IKASTURTERAKO
ESKAINITZA ZEHAZTEA.**

Gernikako AEKko ordezkariak, txostena banatu du batzarkideen artean eta 2017-2018 ikasturteko taldeen balorazio orokorra egin du:

- 16 ikasle guztira (9 A1 mailan eta beste 7 B1 mailan); 60 orduko ikastaroa, azarotik
- Asistentzia: 9k oso ona, 5ek nahikoa eta 2k txarra. Asistentzia faltaren arrazoiak ez dira beti borondate faltagatik, beste arazo batzuk baino: familiarrak, lanekoak,...
- Helburuaren betetze maila:
 - 2k ez dute ezer aprobetxatu
 - 1ek motel
 - 7k ondo
 - 3k oso ondo
 - 3k bikain

Inmigrazio teknikariak adierazi du gogoan duela aurreko urteetan ikasle kopurua gehiagokoa zela, 26 eta antzeko kopuruak.

AEKko ordezkariak erantzun dio azken urteetan arazoak izan direla ikasleak erakartzeko, beste lehentasun batzuk dituztelako (futbol eta beste kirol mota batzuetako entrenamenduak,...).

Hausnarketa egin ondoren, 2018-2019 ikasturterako **hauxe erabaki da:**

1).- Orain arteko eskemari eutsiko zaio (bi talde, A1 hasiera maila eta B1 hobekuntza maila).

2).- Zentroetako zerrendak jasotzeko epe muga: URRIAK 5. Ikasle bakoitzaren fitxa:

- Izen-abizenak.
- Jatorria eta udalerrira noiz etorria.



- Ikasketa maila eta euskara maila (“0” edo “hobekuntza”)
- Kontakturako eta jarraipenerako telefono zenbaki bat.

2)- Egunak, bi astean, aurkezpen egunean finkatuko dira. Ordutegia: arratsaldeko 5:00etatik 6:30era. Ikastaroaren ordu kopurua: 60 ordu.

3).- Ikastaroa Seber Altube ikastolan garatuko da; 2011ko ekainaren 17ko bilkuran erabakitakoari jarraituz, honako konpromisoa hartu zen ikastaroen lekuari dagokionean:

- 2016-2017/2017-2018 ikasturteetan: Gernika Institutua
- 2018-2019/2019-2020 ikasturteetan: Seber Altube Ikastolan.
- 2020-2021/2021-2022 ikasturteetan: Mertzede Ikastetxea.
- 2022-2023/2023-2024 ikasturteetan: San Fidel ikastolan.

Aprobetxatu egin da 5-a) puntua hona ekartzeko (gurasoei begirako euskalduntze ikastaroa), AEK-ren ardurapekoa delako hau ere.

AEKko ordezkariak eskaini du informazioa:

- Bi talde osatu dira: maila aurreratua (8 ikasle) eta oinarrizkoa (“0”tik, beste 8 ikasle).
- Konpromisoa altua da, baina arazoa izaten da lanean hastearena ikastaroan jarraitzea oztopatu egiten duelako. Ikasleetako bik presentzialari eutsi ezin arren, jarraitu egin dute ikastaroa fitxak etxera eramanda eta irakaslearekin aparteko hitzordua hartuta.

Inmigrazio teknikariak galdetu du horietatik etorkinak zenbat diren eta ikasle horiek gero praktikatzeko Berbalagun proiektuan parte hartzerik duten.

AEKko ordezkariak erantzun dio erdiak izan direla etorkinak eta ikastaroaren bitartez behar den maila lortu dutenak Berbalagun taldeetara pasatu direla. Kasu batzuk aipatu ditu.

Ikastaro eskaintza honetarako fitxak bidali dira zentroetara, gurasoentzako, eta izena emateko muga urriaren 5ean izango da.

Ikastaroaren ezaugarriak:

- 1).- Matrikula gisa 60 € kobratuko dira, matrikularen %25. HABEk taldeak homologa ditzan tramiteak burutuko dira eta defizita Udalak jarriko du.
- 2).- Zorrotz jokatu da azpimarratuz titulaziorako ikastaroa ez dela, hastapenerako baino.
- 3).- Epe muga matrikulatzeko: urriak 5 (plaza mugatuak izango dira).
- 4).- Ikastaroaren ordu kopurua 120 ordu, urritik ekainera. Ordutegia ikasleen gogoetara egokitze ahalegina egingo da.

3.- ESKOLAZ-KANPOKO KULTUR EKINTZETARAKO DIRU LAGUNTZAK: AURREKO IKASTURTERAKO FINKATURIKO IRIZPIDEAK MANTENTZEN DIREN ERABAKI

Batzordeko idazkariak azaldu du atal honetako diru laguntzak banatzeko irizpideak ebatzi zituela Udal Eskola Kontseiluak 2017ko irailaren 22an izandako batzarrean. 2017-2018 ikasturterako ebatzi hori haxe izan zen:

“2016-2017 ikasturtean erabilitako irizpideari eutsi 2017-2018 ikasturtean ere, hau da, zentro guztientzat gutxienera (400 euro) eta gainerakoa ikasle kopuruaren arabera banatzea”

Erabakia:

Eskolaz-kanpoko kultur ekintzetarako diru laguntza ematearren, 2017-2018 ikasturtean erabilitako irizpideari eutsi 2018-2019 ikasturtean ere, hau da, zentro guztientzat gutxienera (400 euro) eta gainerakoa ikasle kopuruaren arabera banatzea.

4.- ZENTROETAKO “EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO PLANAK” GARATZEARREN 2017-2018 IKASTURTEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIAREN EGOKIPENAK AZTERTZEA.

Euskara Zinegotziak adierazi du ikasturte honi dagokion deialdia atzeratu beharra dagoela, Euskara arloko aurrekontu partidetan izan diren



murrizketa eta arazoengatik. Normalkuntza Planetarako diru laguntzak ikasturtean zehar emango diren arren, 2019ko lehenengo hiruhilekoan gauzatuko da deialdia eta guztira 16.000 euro banatuko dira.

Batzordeko Idazkariak informazioa eskaini du aurreko ikasturteko araudiaz eta diru laguntzak emateko irizpideei buruz.

Beraz, **hauxe erabaki da:**

1).- Banatuko den diru kopuru orokorra 16.000 €koa izango da. Beraz, araudiaren bosgarren arau berezia honela geratuko da:

a).- 800 €, gutxienekoa, zentro bakoitzari (800x7 = 5.600 €).

b).- 6.000 € ikasle kopuruaren arabera banatzeko.

c).- Gainerakoa (4.400 €) araudiari jarraiki egitasmoen balorazioaren arabera banatzekoa.

2).- Zentro bakoitzeko gutxieneko aurrekonturako 2.000 € finkatu eta gehienezko aurrekonturako 9.000 €.

5.- UDALETIK ESKOLA MUNDURAKO DAUDEN KANPAINA ETA ZERBITZUEN BERRI EMATEA ETA GAINERAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA.

Puntu honen barruan, honakoak aztertu dira:

a).- Gurasoei begirako euskalduntze ikastaroa. Lehenengo puntuan aztertu da.

b).- GAZTEZULOren “BEITU” argitalpen digitala (informazioa).- Batzordeko idazkariak azaldu du GAZTEZULOrekin harremanak badirela, baina aspaldi honetan aldaketa asko izan dituztela arduradunekin eta beldur dela ez ote den nahaste pixka bat sortu.

Institutuaren izenean Ortuzar jaunak aipatu du digitaletik aparte eurek paperezko euskarriko aldizkaria ere banatzen dutela.

Erabakia.- Urriaren 17an egingo den batzarrean puntu hau sartu eta hausnarketa egin (Udalaren aldetik eta zentroetatik ere gestioak egin Gaztezulo-rekiko egoera argitzeko eta, horren arabera, erabaki bat hartzeko).



c).- HIK HASI aldizkariaren harpidetzarena komentatu.- Badaramatzagu urte batzuk HAZI HEZI aldizkariaren harpidetzarako eskaintzarekin. Matrikulatzen diren haur berrien gurasoei begirakoa da eta aurtengo ikasturterako berandu ibili ginenez, ikasturte hasieran gutunaren zabalkundea egiteko eskaera egin zitzaizen zentroe, nahiz eta Allende Salazarrek ekainean prozesu hori bete zuen bere kabuz, urteroko dinamikari jarraituz.

Batzordeko idazkariak aipatu du zain daudela Euskara Zerbitzuan datu bilketa egiteko eta hamar bat eguneko epea eskainiko dela zentroetatik eskaera gehiago dagoen jakiteko.

d).- Aipamenak.- Puntu honetan, hurrengo gai hauen berri eman da:

- Euskarazko produktuen katalogoa: azaroaren azkenerako-edo bantuko da urteroko orri berezia, “euskarazko produktuen katalogoa”-ren zabalkundea egiten duena (mantendu egingo da jostailu eta opari denden partaidetza %5eko deskontuarekin euskarazko produktuetan).
- “Euskara zine aretoetara” programa: “Tinko” eta “Irudi biziak” enpresak dira eskaintza hori egiten dutenak eta honez gero ez badira kontaktuan jarri zentroekin, laster jarriko dira.
- “Hamaika orduko irakurraldia”: abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko egunaren inguruko ekintza izanik, zehaztasunak falta dira eta urrian gaika egiten ohi den batzarrean txertatuko da.

Jarraian, aztergai zerrendan agertzen den 2. Puntuari ekin zaio, atzeratu egin delako Bertsozale elkartearen izenean etortzekoa zen Ander Elortegi jauna batzarrera etorri arte.

2.- “GU ERE BERTSOTAN” EGITASMOARI BURUZKO HAUSNARKETA ETA IKASTURTE BERRIRAKO PLANTEAMENDUA

Bizkaiko Bertsozale Elkartearen izenean etorri da batzarrera Ander Elortegi eta ikasturte berrirako planteamenduaren berri eman du. Aurreko ikasturtearen aldean, talde bi gehiago daude (23 talde, bat gehiago Seber



Altuben eta beste bat gehiago Barrutialde institutuan) eta asteko orduetan ere ordu eta erdi gehiago (14,5).

Beraz, kontuan izanik Euskara Sailak (Hezkuntza arloa eta Kultur Etxearekin elkarlanean) asumitzen duela egitasmoaren kostuaren %50a, jarraian adierazten den koadroa finkatu da 2018-2019 ikasturterako (irakaskuntza zentro bakoitzari dagokiona adierazten da):

IKASTETXEA	MAILA	TALDE KOPURUA	ORDUAK ASTEAN	AURREKONTUA GUZTIRA	UDALAK (%50)	IKASTETXEA (%50)
Allende Salazar	5 eta 6	7	3,5	6.727,00 €	3.363,50 €	3.363,50 €
Gernika BHI (BBT)	DBH	2	2	2.542,00 €	1.271,00 €	1.271,00 €
Mertzedek Ikastetxea	6 eta DBH	2	1	1.922,00 €	961,00 €	961,00 €
San Fidel ik.	6	2	1	1.922,00 €	961,00 €	961,00 €
San Fidel ik. (BBT)	DBH	1	1	1.271,00 €	635,50 €	635,50 €
Seber Altube	6	2	1	1.922,00 €	961,00 €	961,00 €
Seber Altube (BBT)	DBH	3	3	3.813,00 €	1.906,50 €	1.906,50 €
Barrutia eskola	6	2	1	1.922,00 €	961,00 €	961,00 €
Barrutialde	DBH 2	2	1	1.922,00 €	961,00 €	961,00 €
GUZTIRA		23	14,5	23.963,00 €	11.981,50 €	11.981,50 €

Marian Araukua Allende Salazarreko ordezkariak adierazi du esfortzu handia dela zentro bakoitzak egiten duena aurrekontu aldetik.

Luis Ortuzar Gernika Institutuko ordezkariak dio eurek Institutuan erabiltzen duten dinamika desberdina dela. Borondatezkoa planteatzen dute eta eguerdiko tarte batean eskaintzen da, eskola ordutik kanpo. Emaiza oso onak dituzte eta herri desberdinetako partaideak daude.

Allende Salazarreko ordezkariak azaltzen du eurek daukaten zalantza dela eurek egiten duten ahaleginak gero emaitza nabarmenik daukan.

Ortuzar jaunak adierazi dio Bertso eskolan daudenak eskoletako taldeetatik joandakoak direla.

Berritzeguneko Xabier Bilbao jaunak esan du bertsolaritza aipatzen dugula, baina curriculumeko hainbat gauza gehiago lantzen direla egitasmo horren bitartez.

Ander Elortegi jaunak dioenez, laugarren urtea da hitzarmena sinatu zenetik. Irakasle gehiago jarri behar izan dira Bertsozale elkartetik eta emaitzak nabarmentzen ari badira, urteak joan ahala aberatsagoak izango dira.

Dioenez, LH-n hasi eta DBH-n jarraipena izateko eskemari eustea oso inportantea da. Batxilergora pasatzen direnean Bertso Eskolan integratzen dira partaideak. Batetik, “lilibertso” taldean daude 23 lagun, Astran, eta, bestetik, Kultur Etxean dabilta 10 bertsolari gaztetxo.

Tailerretan erabiltzen duten materiala azaldu du eta berrikuntza baten berri ere eman: “bertsoikasgela.eus”. Materiala jarri da sarean irakasleek erabili ahal izan dezaten.

Azkenean, ikasturte amaierako jaialdiaz aritu da eta aurrekoan izandako planteamenduari eutsiko zaiola adierazi du, emaitzak onak izan direlako, hau da, bi ekitaldi edo txanda. Maiatzaren 31n egitea proposatu du eta onartu egin da.

6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez du inork azaldu.

Gaika egiten den batzarrerako data jarri da: urriaren 17an, goizeko 9,30etik aurrera (deialdia egingo da).

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Euskara Arloko zinegotzia

Batzordeko Idazkaria,

Marisa Aldamizetxebarria

Bittor Zarrabeitia Bengoa

